

NOTA DE PRENSA

San Fermin kapera eta udalerriaren papera haren sorreran, Kondestablearen jauregiko erakusketaren xede

Adituen mahai batek testuingurua jarriko dio, gaur arratsaldean, Udal Artxiboan gordetako testu- eta irudi-agiriz osatutako erakusketari

Iruñeko Udalak Kultur Ondarearen Europako Urtearekin bat egin du, nola eta herritarren esku jarritz, gaurtik hasi eta abuztuaren 26ra arte, Udal Artxiboaren funts dokumentalen zati bat, gertu diren jaiekin bereziki lotua. Oraingoan San Fermin kapera aukeratu da, haren sorrera oso errotuta baitago hiriaren historian, Erdi Arotik gaur egun arte, eta lekukotasuna ematen duelako gertakari historiko, joera artistiko eta erakunde jardunbideei buruz: lanak finantzatzeko funts ekonomikoen bilketa eta ideia-lehiaketak, adibidez, jendeak oro har uste duena baino aspaldiagoko kudeaketa-modalitateak dira.

San Ferminentzako kapera bat eraikitzeko dokumentuak (1696-1799) izenburupean, ibilbide bat proposatzen zaie herritarrei, jakinaren gainean egon daitezen nazioarteko oihartzuneko jaiei izena eman dien santuaren bisitokian egindako zenbait proiektuz eta ondoz ondoko birmoldaketaz. Hogeita hamar testu- zein irudi-agiri, eskutitz, plano eta marrazki dira, islatzen dutenak hiriaren garrantzi handiko elementu horrek 300 urteko tartean izan duen bilakaera, bai eta Udalak Iruñeko erreferentzia-gune horren eraikuntzan izan duen protagonismoa ere.

Gaur egun ezkontza eta bataioetarako erabiltzen da tokia; kolunbario bat dauka, herritarren eskaeren ondorioz eraikitakoa; eta “eskailerako meza” ere liturgia-espazio horretan egiten dira. Kapera horretatik irtengo da santuaren irudia heldu den uztailaren 7an, eta bertara itzuliko, prozesioa amaitzean. Erakusketa Kondestablearen jauregiko Erdi Aroko aretoan dago (Kale Nagusia, 2), eta bertan egin dute jendaurreko aurkezpena, gaur goizean, Gardentasun, Berrikuntza eta Hizkuntza Politikako zinegotzi ordezkari Aritz Romeok eta Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi ordezkari Maider Belokik. Gaur, 20:00etan, adituen mahai batek ahoz azalduko du agiriekin aditzera ematen dutena, hainbat abiapuntu aintzat hartuta: eraikuntza-lanen testuinguru historikoa, gaur egungo egoera juridikoa, debozioarekin lotutako erabilera zein ohiturak, eta herritarren bizipenak.

Ondarea, izaeraren isla gisa

Kultur Ondarearen Europako Urtearen xedea da herritarrak animatzea Europako kultur ondarea aurkitzera eta horrekiko konpromisoa hartzera, horrela sendotuz toki komun batekiko





atxikimendua. Kultur ondareak eragina dauka pertsonen identitate eta eguneroko bizitzan; eta ideia horren harira, formatu anitzeko ekitaldiak ari dira prestatzen Europa osoan. Ondare komuna, bizipen partekatuak eta zerbitzu publikoa, horra Iruñeko Udalak Udal Artxiboaren bidez eta erakusketa honetan lotu nahi dituen hiru ideiak. Erakusketak, gainera, bat egiten du iazko uztailaren 7an hasi eta San Fermin kaperaren sagarapenaren III. Mendeurrena ospatze aldera egin zen San Ferminen Jubileuko Urtearen azken egunekin.

Espazio hau sartzan da Nafarroan barrokoaren garaian protagonismorik handiena lortu zuen erlijio-arkitekturaREN tipologiaren barruan –patronatuaren kapera–, eta lehen mailako arkitektura-elementua izateaz ez ezik, santu unibertsal batenganako debozio-ikur da. Izan ere, mundu osoan santuaren izenez ezagutzen diren hiriko patroifestez gain, ekitaldi eta funtzio erlijioso ugari antolatzen dira, oraindik ere, haren inguruan.

Udal-patronazgoa: *crowdfunding*

Erdi Aroko San Zernin burguak bi parrokia zituen, San Zernin eta San Lorentzo, ziur aski bertako biztanleen dualtasuna zela medio (frankoak eta laborariak). San Lorentzoko eliza XIII. mendeko lehen hamarkadetakoa da (1230 ingurukoa), eta bere dorreari esker, hiriko defentsa-sistemaren parte zen. 1276. urteko Nabarrieriako gerrak kalte larriak eragin zituen parrokian, eta XIV. mende hasieran berreraiki behar izan zuten. Orduan, tenplu gotiko bat egin zen, nabe zabal bat eta alboetan, kontrahormen artean, kaperak zituena. Kale Nagusitik sartzan zen, eta zenbait klaustro-galeria eta hilerri txiki bat zituen.

Udalak San Ferminen erlikia-irudiarentzako babesleku duina eraiki nahi zuen, eta 1696ko uztailaren 11n harendako kaperaren sustatzaile bihurtu zen; estilo barrokoko kapera parrokiari erantsita eraiki zen. Kapera finantzatzeko, iruindarrak ez ezik, askotariko nafarrak engaiatu zituen Udalak, horietako batzuk Madrilén bizi zirenak –asko Nafarren San Ferminen Errege Kongregazioko kideak– eta Amerika eta Filipinietan sakabanatuta zeuden beste batzuk. Erakusketaren lehen beira-arasan ikus daitezke patronazgo-prozesu horren erreferentziak.

Inoiz egin ez zen kapera berria

Hurrengo hiru erakustokietan biltzen da jende gehienak ez dakien kontu bat. Patronazgoa egiteko moduak tirabirak sortu zituen zinegotzi eta parrokiako langileen artean, eta Udalak bere kapera propioa eraikitzea pentsatu zuen; are, baimenak kudeatu zituen kapera eraikitzeke Miserikordiaren Etxe ondoko baratzean, gaur egungo Sarasate pasealekuan, Espainiako Banku eta Postetxearen eraikinen artean.

Ekimen horrek, agerikoa denez, ez zuen aurrera egin, baina Udal Artxiboaren zaintzapean den Iruñeko Udaleko funts dokumentalean diseinu batzuk utzi zituen (oin-planta, altxaera, sekzioak...), hainbat irtenbide proiektatzen zituztenak: gurutze grekoko oin-planta eta alboetan kaperak, askotariko beso motako gurutzadurak, dorre bat edo atari arkupeduna. Ideia horiek gauzatzeko hainbat obra-maisuk parte hartu zuten, eta horietako batzuen izena oraindik anonimoa da.





Ideia neoklasikoen lehiaketa

XVIII. mendeko erdialdetik aurrera San Lorentzo ondoko kaperaren kupula narriatuz joan zen, batez ere egurrezko egitura, zeinaren zati bat erori baitzen. Horrek eta gizarteak eduki zuen gustu-aldaketak –barrokoa baino mugimendu artistiko soilagoen alde– ekarri zuten, mende bat geroago, Konbentzio-gerraren ostean, Udalak ideia-lehiaketa bat abiatzea, kapera estilo neoklasikoarekin bat eraberritzeko.

Ideia-lehiaketa horri buruzko agiriak daude erakusketaren gainerako sei beira-arasetan. Molde modernoko ekimen horretan parte hartu zuten honako lau arkitekto hauek: Fernando Martínez Corcín, Diego Díaz del Valle, Juan José Armendáriz eta Santos Ángel Ochandátegui. Udalak “meritu handiko arkitektotzat” jotzen zuen azken hori, eta haren proiektuak zedarritu zuen azkenean gaur egun San Ferminen irudia gordetzen duen espazioa.

Santos Ángel Ochandáteguik proiektatutako obrak 1800 eta 1805 artean gauzatu ziren; baina 1823an, San Luisen Ehun Mila Semeen espedizioaren harira gertatutako bonbardaketaren ondorioz, kaperak sua hartu zuen, eta haren kupula errematatzen zuen linterna eraitsi zen, eta 1824an berriro eraiki.

Adituen mahai bat, testuingurua jartzeko

Erakusketarekin batera, mahai-inguru bat egingo da Kondestablearen jauregian, 20:00etan, bide emango diena bertaratzen direnei erakusketaren edukia testuinguruan kokatzeko. Jendeari zabalik egongo den solasaldi horretan honako hauek parte hartuko dute: Juan José Martinena, Nafarroako Artxibo Nagusiko zuzendari ohia; Ricardo Fernández Gracia, Nafarroako Unibertsitateko Arte irakaslea; Luis Javier Fortún, historialaria eta Foru Parlamentuko artxibozaina; eta Javier Leoz, San Lorentzoko parrokoa eta San Fermin Gortearen kapilaua. Udal-artxibozain Ana Hueso arituko da moderatzaile-lanetan.

Asmoa da mahai-inguruan zenbait gai jorratzea: eraikuntzaren historiarekin loturiko alderdiak, eraikinaren kontserbazioa eta erabilera, Iruñeko Udalak kudeaketan izan duen papera eta kudeaketa horrek eragindako inplikazio juridikoak.

Erakusketa bisitatzeko ordutegia zentroaren ordutegi bera izango da. Uztailaren 5era arte, ostiralarekin, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara. Sanferminetan, Kondestable itxita egongo da uztailaren 6an eta 7an, eta 8, 10, 11, 12, 13 eta 14an, 11:00etatik 14:00etara egongo da zabalik. Uztaileko gainerako egunetan, erakusketa ikusi ahal izango da astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, eta larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara.

Iruñean, 2018ko uztailaren 4an

